

NAFARROAKO  
SOZIOLOGIA ETA POLITOLOGIA  
ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUAK

---

*Aldaketa partziala, irailaren 28ko 391E/2020 Ebazpenaren bidez onetsia  
2020ko 280. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abenduaren 1ekoa*



Colegio de Sociología y  
Politología de Navarra

Nafarroako Soziologia  
eta Politologia Elkargoa

Lanbide Elkargoen eta Elkargoen Kontseiluen Erregistroan duen inskripzio zenbakia: 19

Otsailaren 24ko 120/2006 Ebazpenaren bidez inskribatua

# COLEGIO OFICIAL DE SOCIOLOGÍA Y POLITOLOGÍA DE NAVARRA - NAFARROAKO SOZIOLOGIA ETA POLITOLOGIA ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUAK

## *Oinarrizko printzipioak*

### **1. artikulua.**

Colegio Oficial de Sociología y Politología de Navarra-Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargo Ofiziala elkartearen zuzenbide publikoko korporazioa da; elkargoak izaera juridiko propioa du, eta bere helburuak betetzeko erabateko gaitasuna. Hala barneko egitura nola jarduteko duen araubidea demokratikoak dira.

Lanbide elkargoetan sartu eta bertan aritzeko, tratu berdinen eta bereizkeriarik ezaren printzipioari jarraituko zaio, bereziki arraza edo etnia, erlijioa edo sinesteak, desgaitasuna, adina edo sexu joera direla eta, Neurri Fiskalei, Administratiboei eta Maila Sozialekoei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen II. tituluko III. kapituluko III. atalean ageri den moduan.

Haren eginkizuna da:

- a) Elkargoko kideak eta haien lan jardueraren inguruko gaiak ordezkatu, sustatu eta defendatzea.
- b) Soziologiako eta/edo Politologiako lizentziadunen eta gradudunen prestakuntza eta hobekuntza laguntzea eta haien lanaren garrantzi soziala eta kulturala nabarmentzea noiznahi.
- c) Lanbidea garatzen laguntzea eta arloko profesionalak erakunde sozialetako eremu guztietan gero eta hobeki izan daitezen lan egitea.
- d) Aukera berdintasuna sustatzea emakumeen eta gizonen artean soziologiaren eta politologiaren esparruetan.
- e) Lanbidean aritzeko elkargoaren arauak eta lanbidearen printzipio deontologikoak zehatz-mehatz betetzen direla begiratzea.
- f) Lanbidea defendatu eta ordezkatzeko Administrazioaren, erakundeen, epaitegien, entitateen eta partikularren aurrean, lanbidearen interesetan eragina duten auzi guztietan jarduteko legezko ahalmena duela.
- g) Lanbidea defendatu eta ordezkatzeko Administrazioaren, erakundeen, epaitegien, entitateen eta partikularren aurrean, lanbidearen interesetan eragina duten auzi guztietan jarduteko legezko ahalmena duela. Elkargoko kideen zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak babestea.
- h) Legeetan aurreikusitakoaren arabera izan da sozietate bidezko jardun profesionala. Elkargoak ez du inola ere mugarik ezarriko, berez edo bere estatutuen bitartez edo elkargoko gainerako araudiaren bitartez, lanbidean sozietate bidez jarduteko.
- i) Lanbideari buruzko eta errealitate eta aldaketa sozialari buruzko azterlanak eta ikerketa proiektuak egitea.
- j) Elkargoak konpromiso hau hartzen du: elkargoko kideei buruzko eta haiei ezarritako zehapen irmoei buruzko informazio eskaerei erantzutea, baita Europar Batasuneko estatu bateko edozein agintari eskudunek egiten dituen ikuskapen edo ikerketa eskaerei ere, zerbitzuen jardueretara libreki iristeari eta gauzatzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legean ezarritako moduan (bereziki kontrolak, ikuskapenak eta ikerketak egin eta informazioa lortzeko eskaerak behar bezala arazoituta egon behar izateari eta lortzen den informazioa eskaerako xederako soilik erabili behar izateari dagokienez).
- k) Elkargoko kideen zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak babestearen aldeko eginkizunak.

## 2. artikulua.


Nafarroako Foru Komunitatea da Colegio Oficial de Sociología y Politología de Navarra-Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargo Ofizialaren lurralde eremua, baina ez da horretara mugatzen. Elkargoak Iruñean edo Iruñerrian izanen du egoitza.

## 3. artikulua.

Gaztelania eta euskara dira Colegio Oficial de Sociología y Politología de Navarra-Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargo Ofizialaren hizkuntza ofizialak. Beraz, Colegio Oficial de Sociología y Politología de Navarra da gaztelaniazko izen ofiziala, eta Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargo Ofiziala, berriz, euskarazkoa. Akronimoa COLSOCPONA da gaztelaniaz, eta NASOPOELK euskaraz.

## 4. artikulua.

Elkargoaren ikur ofiziala lema gris urdinkara bat da. Lemaren erradioak kate laranjak dira hondo gorriaren gainean jarriak. Barrenean “Ciencia Política y Sociología” esaldia du. Lemaren gainean jarria, kolore bertsuko zuzi bat dago.



### *Elkargoko kide egitea eta baja hartzea*

## 5. artikulua.

Elkargoko kide izateko, baldintza hauek bete behar dira: Espainiako edo Europar Batasuneko nazionalitatea izatea, adinez nagusia, eta Zientzia Politikoetan edo Soziologian lizentziadun, gradu-dun edo doktore titulua edukitzea. Frogatu behar da atzerriko unibertsitateen tituluak baliozkotuta daudela.

## 6. artikulua.

Elkargoan sartzea.

Elkargoko kide izateko, adinez nagusia izan behar da, eta Soziologiako eta/edo Zientzia Politikoetako unibertsitateko goi mailako titulua izan, eta/edo aipatutakoen konbinazioa edo konbinazio bat duten titulazioetako, Espainiako unibertsitate batean lortu denean titulua.

Elkargoko kide izan daitezke, orobat, Soziologiako eta/edo Zientzia Politikoetako unibertsitateko goi mailako titulua atzerrian lortu duten adinez nagusiak, eta/edo aipatutakoen konbinazioa edo konbinazio bat duen titulazioa lortu dutenak, baldin eta:

- i) Lortu badute unibertsitateko graduaren, lizentziaren, master ofizialaren edo doktoretzaren tituluaren baliokidetasun deklarazioa Hezkuntza Ministerioaren partetik, 967/2014 Errege Dekretuak jasotzen duen moduan, edo
- ii) Titulua behar bezala baliozkotu badute Elkargoko kide izateko onartzen diren tituluetakoa batekin.

Behar diren eginbideak egin ondoren, Gobernu Batzordeak elkargoan sartzeko eskaera ebatziko du. Hiru hilabeteko epean erantzun beharko du. Eskaera onartzen ez bada, entzunaldiaren izapidea hasiko da eta interesdunari 15 eguneko edo gehiagoko epea emanen zaio alegazioak aurkezteko.

### **7. artikulua.**

Elkargoko kide motak. Honela sailkatzen dira Elkargoko kideak:

a) Elkargoko kide arrunta.

Elkargoko kide arrunta da, beharrezko betekizun guztiak beteta, Elkargoan sartzea eskatu eta lortu duena lanbidean aritzeko, Estatutu hauetan aurreikusitako moduan, eta 9. artikuluan aipatutako eskubideak izanen ditu.

b) Ohorezko elkargokideak.

- i) Ohorezko elkargokideak izanen dira, elkargoko kide izan ala izan gabe, lanbideari dagokionez edo Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoari dagokionez, lan nabarmena egin duten pertsona fisikoak edo juridikoak, politologoak eta soziologoak izan edo ez. Ohorezkoa izanen da kategoria hau: ez ditu Elkargoko kide osoen eskubide eta betebeharrak izanen eta kategoria horri dagozkionak zor izanen zaizkio.
- ii) Elkargoko Batzarra da, Gobernu Batzordeak proposamena egin ondoren, edo, gutxienez, bost elkargokidek eskatu ondoren, ohorezko elkargokideak izendatzeko organo eskuduna.
- iii) Elkargoak erregistro berezi bat eramanen du, non jasoko baitira, ohorezko elkargokideez gain, Elkargoak emandako sari eta goresmen-sari guztiak.

### **8. artikulua.**

Honako kasu hauetan utziko dio kideak elkargoko kide izateari:

- a) Norberak eskatuta, salbu eta elkargoko kidea diziplina prozesu batean baldin badago.
- b) Erregelamenduzko kuotak ez ordaintzeagatik. Kasu honetan, Gobernu Batzordeak idatziz eskatzen duenetik hogeita hamar egunera gertatuko da baja.
- c) Desgaikuntza dakarren epai baten ondorioz edo nazionalitatea edo eskubide zibilak galtzeagatik.
- d) Diziplina zehapen baten ondorioz, estatutu hauetako 14.c artikuluan ezartzen den bezala.

### *Elkargokideen eskubideak*

### **9. artikulua.**

Elkargokideek eskubide hauek izanen dituzte:

- a) Lanbide jarduerari loturiko bidezko erreklamazioetan, Gobernu Batzordearen ordezkari eta laguntza jasotzea.
- b) Kontsumitzaile nahiz erabiltzaileentzako arreta zerbitzu bat izanen du. Hark nahitaez tramitatuko eta ebatziko ditu elkargokideen elkargoko edo lanbideko jarduerarekin lotuta aurkeztu diren kexak eta erreklamazioak, zerbitzu profesionalak kontratatzen dituen edozein kontsumitzailek edo erabiltzailek aurkeztuak, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte eta erakundeek aurkeztuak, beren interesak ordezkatzuz edo horien defentsan.
- c) Kontsumitzaileei edo erabiltzaileei arreta emateko zerbitzu horren bitartez, kexari edo erreklamazioari buruzko ebazpena emanen dute, bidezkoa denaren arabera: dela gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemari buruzko informazioa emanez, dela espedientea elkargoko

organo eskudunei igorritik informazio edo diziplina espedienteak irekitzeko, dela artxibatuz edo dela zuzenbidearen arabera beste edozein erabaki hartuz.

- d) Zerbitzu horren araudian keak elektronikoki eta urrutitik aurkezteko aukera jaso beharko da.
- e) Gobernu Batzordea, kontu-zentsoreak eta batzorde bereziak hautatzeko bozketetan parte hartzea.
- f) Estatutu hauetan ezarritako baldintzak betez gero, hautatzen diren karguetarako hautagai aurkeztea.
- g) Elkargoaren batzarretara joatea.
- h) Zuzendaritza karguetarako hauteskundeetan parte hartzea.
- i) Lanbidea defendatu eta sustatzeko asmoz elkargoak antolatzen dituen jarduera guztien berri izatea (ikastaroak, mintegiak, proiektuak, etab.).
- j) Elkargoaren jarduerak antolatu eta garatzen laguntzea, egoitzara joatea eta eskura dauden zerbitzu eta argitalpen guztiak erabiltzea.
- k) Gobernu Batzordea biltzeko eskatzea, hari aholku eskatu eta interpelazioa eta zentsura egitea.

### *Elkargokideen betebeharrak*

#### **10. artikulua.**

Elkargokideek betebehar hauek izanen dituzte:

- a) Lanbide jardueran lanbidearen etikak ezartzen dituen arauari jarraikiz aritzea.
- b) Elkargoaren arauetan eta Batzarraren eta Gobernu Batzordearen erabaki eta akordioetan ezarritakoa betetzea, deusetan galarazi gabe zilegi diren errekurtsioak jartzea.
- c) Helbidea aldatuz gero, Gobernu Batzordeari jakinaraztea, hogeita hamar eguneko epean.
- d) Dagozkion kuota eta tasak ordaintzea.
- e) Gobernu Batzordearen aurrean aurkeztea, horrek eskatuz gero.
- f) Zinpeko aitortpenak eta kontratuak ezarrita dauden epeetan aurkeztea, baita legeek eta erregelamenduzko estatutu xedapenek ezartzen dituzten gainerako agiriak ere.
- g) Zerbaiteko izendatuz gero, kargua arduraz betetzea.

### *Diziplina araubidea*

#### **11. artikulua.**

Elkargoko kideek estatutu hauetan, Elkargoaren barne araudietan edo batzarren eta Gobernu Batzordearen erabakietan bildu diren manuak ez betetzeak eta, oro har, lanbideko duintasunaren eta etikaren aurkako jokamolde orok kasuan-kasuan bidezkoa den zehapena ekarriko dute eta, ondorioz, interesdunari bidezko espedientea irekiko zaio. Estatutu hauetan biltzen diren hutsegiteengatik elkargokideei zehapenak jartzeko eskumena Gobernu Batzordeari eta, kasua bada, Batzar Nagusiari dagokie.

#### **12. artikulua.**

Zehapen prozedura hasteko, batzordekide aholkulari juridikoak espedientea prestatuko du. Ondoren, aholkulari horrek espedientearen berri emanen die interesdunari eta hamar eta hamabost

egun arteko entzunaldia irekiko du nahi adina froga, alegazio eta abar aurkezteko. Erruztatuak berak egin dezake defentsa, edo legezko ordezkari edo beste elkargokide bat izendatu horretarako.

### 13. artikulua.

Zehapen prozeduran, Gobernu Batzordeak egoki iruditzen zaizkion kautelazko neurriak hartzen ahalko ditu, elkargoaren interes orokorra eta azkenean hartzen diren ebazpenen eraginkortasuna bermatzeko.

#### *Falta arinak eta astunak*

### 14. artikulua.

#### 1. Falta arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke:

##### a) Falta arinak hauek dira:

- Elkargoko kideen eginbeharrak ez betetzea eta kideen eskubideak galaraztea, estatutu hauen arabera falta astuntzat edo oso astuntzat hartzeko modukoa ez bada.
- Estatutuetako manuak edo Nafarroako Elkargoko organoen erabakiak ez betetzea, betiere ez ohartzeagatik edo desenkusutzen ahal den utzikeriagatik denean.
- Lanbideko lanetan garrantzi txikia duten okerrak egitea.
- Elkargoko gainerako kideenganako begirune falta eta garrantzi handirik gabeko dese-gokikeria eta adeitasunik eza lankideekin.
- Elkargoarekiko diziplinarik eza adierazten duten garrantzi handirik gabeko ekintzak edota jendaurrean lanbidearen ohorearen eta izen onaren kalterako diren jarrerak azaltzea. Oro har, azalpena duen eta unean unekoa den utzikeria edo ardurarik ezagatik lanbideko edo elkargoko betebeharrak betetzen ez diren gainerako kasuak.

##### b) Falta astunak:

- Estatutu hauetako 9. artikuluko e), f) eta g) letretan adierazitakoa ez betetzea.
- Estatutu hauetako 8. artikuluko b), e) eta h) letretan ezarritako eskubideak galaraztea.
- Inolako desenkusarik eduki gabe estatutuetan edo Nafarroako Elkargoaren organoen erabakietan xedatutakoa ez betetzea.
- Elkargoaren bidez tramitatu beharreko dokumenturen bat faltsutzea.
- Kontratatu diren lanak ez egitea eta jakitun egonik lanbideko ordainsari desegokiak jasotzea.
- Elkargoko kideen lan intrusismoa estaltzea.
- Lanak egitean edo zerbitzuak kontratatzean axolagabekeriak, aurreikuspenik ezaz edo lanbidearen izen onari kalte egiten ahal dion jokabide larria erakutsiz jokatzeko.
- Batzar Nagusiak estatutu hauek aplikatzeko edo interpretatzeko ematen dituen erabakiak ez betetzea.
- Lanbideari lotuta dauden gaiak jendaurrean azaltzea, ahoz zein idatziz, halako moduan non horrela lanbidea edo lankideak mespretxatzen diren edo haien izen onari kalte egiten zaion.
- Elkargoarekiko diziplinarik eza adierazten duten ekintzak behin baino gehiagotan egitea eta horien barruan sartzen dira Gobernu Batzordeko eta elkargoaren gainerako organoetako kideak begirunerik gabe tratatzea.

- Zehapen arinak errepikatzea, falta horien artean gutxienez urte bateko epea igaro ez bada.
- c) Falta oso astunak:
  - Falta astuntzat hartu direnak, baldin eta gaiztakeriaz jokatu eta doloa egiteko gogoan egon bada eta, horregatik, eragiten dituzten kalteak ere askoz mingarriagoak badira.
  - Hiru falta astun egitea eta falta horien artean gutxienez urte bateko epea igaro gabe egotea.
  - Lanbide jardueran dolozko delitua egiteagatik kondena jasotzea, baldin eta jendaurreko kontzeptuaren arabera izen onari kalte egiteko edo iraintzeko moduan jokatu bada.
  - Lanbideko duintasunaren eta etikaren aurka nabarmen jotzen duten ekintzak egitea.

### *Zehapenak*

#### **15. artikulua.**

##### 1. Hona hemen ezar daitezkeen zehapenak:

- a) Falta arinetan:
    - Hitzezko kargu-hartzea.
    - Ofizio bidezko ohartarazpena.
    - Gobernu Batzordearen edo haren batzorde delegatuaren gaitzespen pribatua; horren berri aktan eta elkargoko kidearen espedientean idatziko da.
  - b) Falta astuna egiteagatik:
    - Jendaurreko gaitzespena, elkargoaren buletina edo informazio-orria erabiliz edota elkargoko kide guztiei igorriko zaien zirkularraren bidez.
    - Zuzendaritzako karguetarako desgaitzea, gutxienez hiru hilabeterako eta gehienez bi urterako.
    - Elkargoko kideei dagozkien eskubideak kentzea sei hilabete baino gutxiagorako.
    - Elkargoko kideei dagozkien eskubideak kentzea sei hilabete baino gehiagorako. Kasu horretan, eskubideak eteteko erabakia Gobernu Batzordearen osoko bilkuraren gehiengo osoak hartu beharko du, isilpeko bozketaren bidez. Horrelako bilkuraren bat deituz gero, batzordeko kide guztiek joan beharko dute, eta arrazoirik gabe agertu ezean, kargua galduko dute.
  - c) Falta oso astunen zehapenak:
    - Elkargoko kide izateari uztea, gutxienez sei hilabeterako eta gehienez bi urterako.
    - Elkargotik aldi baterako kanporatzea, gehienez bi urterako. Zehapen hau jartzea Batzar Nagusiari dagokio, Gobernu Batzordeak proposatuta, sei hilabetetik gorako eskubide-etendurak erabakitzen diren kasuetarako aurreko apartatuan ezarritako prozedurari jarraikiz.
    - Elkargotik kanporatzea. Zehapen hau jartzea Batzar Nagusiari dagokio, Gobernu Batzordeak proposatuta, sei hilabetetik gorako eskubide-etendurak erabakitzen diren kasuetarako aurreko apartatuan ezarritako prozedurari jarraikiz.
2. Arau-hausteak iraungitzeko epea hiru urtekoa izanen da arau-hauste oso astunen kasuan, bi urtekoa arau-hauste astunen kasuan eta sei hilekoa arinen kasuan. Falta oso astunetan ezartzen diren zehapenak hiru urte igaro ondoren iraungiko dira, falta astunetan ezartzen



direnak bi urte igaro ondoren, eta falta arinetan ezartzen direnak urtebetera. Arau-haustek iraungitzeko epea egin diren egunetik zenbatuko da eta zehapenei dagokiena, berriz, zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu den egunaren biharamunetik.

3. Aurreikusi diren zehapen horiek ezartzeko nahitaezkoa izanen da bidezko diziplina espedientea hastea; espedientea Gobernu Batzordeak tramitatuko du, ezarrita dauden arauak betez.

#### **16. artikulua.**

Kidegoko kideei ezartzen zaizkien zehapenak idatziz jakinarazi beharko zaizkie interesdunei, erabakia hartu eta ondoko hiru egun balioduneko epean. Gobernu Batzordeak zehapen espedientei buruz hartzen dituen erabakien aurka errekurso arrunta jartzen ahal da, Batzar Nagusiari zuzendua, hilabeteko epean. Gobernu Batzordeak kideen errekursoak aztertzen diren lehenbiziko bilkuraren gai-zerrendan sartu beharko du.

#### *Leihatila bakarra*

#### **17. artikulua.**

1. Elkargoak badu web orri bat, profesionalek elkargoko kide egiteko, lanbidean aritzeko eta baja emateko beharrezkoak diren tramiteak egin ditzaten, puntu bakar baten bidez, bide elektronikoa eta urrutikoa erabiliz, hori guztia zerbitzuen jardueretara libreki iristeari eta gauzatzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legean ezarritako leihatila bakarraren bitartez. Leihatila horren bidez profesionalek aukera izanen dute honako hauek dohainik lortzeko:
  - a) Lanbide jardueran hasteko eta aritzeko beharrezkoak diren informazio eta inprimaki guztiak eskuratzea.
  - b) Beharrezkoak diren agiri eta eskabide guztiak aurkeztea, elkargokide egitekoa barne.
  - c) Interesdun gisa agertzen diren prozeduren tramitazioaren egoera zein den jakitea, eta aginduzko tramite-egintzen jakinarazpena eta elkargoak horien gainean ematen duen ebazpena jasotzea, diziplina-espedienteen jakinarazpena barne, beste bide batzuen bitartez egitea ezinezkoa denean.
  - d) Elkargoko kideak batzar orokor arrunt eta berezietara deitzea eta lanbide elkargoaren jarduera publiko eta pribatuaren berri ematea.
2. Leihatila bakarraren bitartez, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak hobeki babesteko, elkargoak honako informazio argi, garbi eta doako hau emanen du:
  - a) Elkargoko kideen erregistroan sartzeko aukera. Erregistro hori eguneratuta egonen da etengabe eta datu hauek bilduko ditu gutxienez: elkargoko kide diren profesionalen izen-deiturak, elkargoko kide zenbakia, eta dituzten titulu ofizialak.
  - b) Lanbide Sozietateen Erregistroan sartzeko aukera. Erregistro horrek Lanbide Sozietateei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legearen 8. artikuluan azaltzen den edukia izanen du.
  - c) Batetik kontsumitzaile edo erabiltzailearen eta bestetik elkargokide baten edo lanbide elkargoaren arteko gatazkaren bat izaten denean aurkez daitezkeen erreklamazioak eta errekursoak aurkezteko bideak.
  - d) Lanbide zerbitzuen hartzaileek laguntza lortzeko eskura dituzten kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte edo erakundeen datuak.
  - e) Kode deontologikoen edukia.



## *Zuzendaritza organoak*

### **18. artikulua.**

Hauek dira Elkargoaren ordezkariak, gobernu eta administrazio organoak: Batzar Nagusia eta Gobernu Batzordea. Aholkularitzarako organo bat ere bada: Kontseilu Profesionala.

### *Batzar Nagusia*

### **19. artikulua.**

Batzar Nagusia elkargoaren organo gorena da.

Elkargokide guztiak joan daitezke Batzarrera, hizpidea eta botoa dutela. Erabakiak gehiengoaren sistemaren bidez hartuko dituzte. Batzar Nagusiak bilkura arruntak eta bereziak egiten ahalko ditu.

### **20. artikulua.**

Justifikatutako arrazoi bat dela kausa Batzar Nagusira joaterik ez duten kideek beste bati uzten ahal diote ordezkariak, baina debekatuta dago bilkura berean kide bat baino gehiago ordezkatzeko. Baimena, notario bidez egina, batzarraren bilkura jakin baterako izanen da eta bertan ordezkariaren izena adierazi beharko da.

### *Batzar arruntak*

### **21. artikulua.**

Batzar Nagusiak bilkura arrunta egiten du urtean behin. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, otsailean egiten da.

### **22. artikulua.**

Otsaileko bilkura arruntean, ondotik agertzen diren gaiak jorratuko dira nahitaez eta dekanok berak azaldu beharko ditu:

- a) Gobernu Batzordeak aurreko urtean egindako kudeaketa lanari buruzko txostena.
- b) Hasi berri den urterako jardueren proiektua.
- c) Lan batzordeen jarduerari buruzko txostena.
- d) Bukatutako urtearen gastu eta diru-sarreraren kontrola. Horrekin batera, hori kontrolatzeko, bi kontu-zentsore titular eta bi ordezkari aukeratu dira, Gobernu Batzordetik kanpokoak.
- e) Hasi berri den urterako aurrekontua.
- f) Karguak hautatzea, baldin eta Gobernu Batzordean kargu hutsik badago.
- g) Azkenik, Batzarrak Gobernu Batzordeko kideen hautapen arrunta egin beharko du, hurrengo bi urterako.

### *Batzar bereziak*

### **23. artikulua.**

Batzar Nagusiak bilkura berezia egiten du Gobernu Batzordeak edo elkargokideen ehuneko hogeita hamarrek eskatuta. Kasu horretan, bilkura justifikatzeko kausak azaldu beharko dira, hala nola jorratuko diren gaiak.

Bilkura berezi horiek Gobernu Batzordearen erabakia edo elkargoko kideen eskaera jaso eta, beranduenik, hogeita hamar eguneko epean egin beharko dira.

**24. artikulua.**

Batzarraren bilkura berezietan honako hauek landuko dira:

- a) Estatutuen aldaketak.
- b) Gobernu Batzordearen aurkako zentsura-mozioa.
- c) Gobernu Batzordearen hautapena, epea bukatu aurreko kargu-uzteetan eta dimisio kasuetan.

*Batzarren deialdia, eraketa eta bozketa*

**25. artikulua.**

Bilkura egin aurreko hilabeteko azken astea baino lehenago, elkargokideek egoki iruditzen zaizkien proposamenak egin ditzakete. Elkargokideen ehuneko hamabostek edo gehiagok sustatuz gero, proposamenak gai-zerrendan sartuko dira, eta galde-erantzunekin hasi aurre-aurretik aztertu beharko dira.

**26. artikulua.**

Batzarretarako deialdia zirkular pertsonalaren bidez egingen da. Bertan, bilkura arrunta edo berezia den azalduko da eta, horrekin batera, egiteko tokia, eguna eta ordua, eta gai-zerrenda. Zirkularra Gobernu Batzordeko idazkariak sinatu beharko du.

Deialdia hamabost egun lehenagotik egin beharko da, hauteskundeak egiteko batzarrena izan ezik, kasu horretan hogeita hamar egun natural lehenago egin beharko da eta.

**27. artikulua.**

Bigarren deialdian batzarraren eraketa baliozkoa izanen da bertaraturiko kideen kopurua edozein dela ere, salbu eta gai-zerrendan estatutuen aldaketa edo zentsura-mozio bat agertzen bada, kasu horietan gutxieneko quoruma elkargoko kideen % 20koa izanen baita, bertarutzen direnak eta, notario bidez, batzar horretarako propio emandako ordezkariak utzi dutenak kontaktuta.

**28. artikulua.**

Erabakiak hartzeko bozketak, oro har, eskuak altxatuta egingen dira, bertarutzen direnen eta ordezkariuen gehiengo soilaren bidez. Bertan dagoen elkargokideren batek isilpeko bozketa eskatuz gero, halaxe egingen da.

**29. artikulua.**

Aurrekontu bereziak, estatutuen aldaketak edo zentsura-mozioaren bat jorratu behar baldin bada, erabakiak hartzeko, bertarutzen diren kideen bi herenen gehiengo eskatuko da. Horrelakoetan, kideak banan-banan identifikatuz egingen da bozketa.

**30. artikulua.**

Hartzen diren erabakiak aktetan jasoko ditu Gobernu Batzordeko idazkariak. Hurrengo batzarrean aurrekoaren aktak irakurriko dira, bidezkoa bada, onartzeko. Elkargoko kideek ohartarazpen partikularren bat egin nahi badute, idatziz eskatu beharko diote Batzordeko idazkariari edo bilkurako idazkariari.

*Batzar Nagusiaren eginkizunak*

**31. artikulua.**

Batzar Nagusiak elkargoaren jardunbidearen gaineko gaiak aztertzen ahalko ditu eta, betiere, honako eskumen hauek dagozkie:

- a) Dagokionean, aurreko bilkurako akta onartzea.

- b) Aurreko urteko kontuak eta balantzeak eta hurrengo urterako aurrekontua aztertu eta, bidezkoa bada, onestea.
- c) Prestazio berezien sortzapena onartzea.
- d) Gobernu Batzordeko kideak hautatzea, bidezkoa denean.
- e) Gobernu Batzordearen eta osatzen diren lan taldeen kudeaketa aztertu eta eztabaidatzea.
- f) Gobernu Batzordearen aurka aurkeztu diren zentsura-mozioak eztabaidatzea eta, bidezkoa bada, onestea.
- g) Falta oso astunengatik ezartzen diren zehapenak jartzea.
- h) Elkargoaren estatutuen aldaketak onestea.

### *Gobernu Batzordea*

#### **32. artikulua.**

Gobernu Batzordea Batzar Nagusiaren etengabeko ordezkari organoa da, haren erabakiak betearazteko ardura duena. Gobernu Batzordeari dagokio, orobat, estatutu hauek interpretatzea eta aplikatzeko orduan sortzen diren arazoak ebaztea.

#### **33. artikulua.**

Gobernu Batzordea honako kideek ordezkatzeko dute:

1. Dekanoa; 2. Dekanordea; 3. Idazkaria; 4. Idazkariordea; 5. Diruzaina; 6. Kontu hartzailea;
7. Aholkularitza juridikoko batzordekidea; 8. Informaziorako eta harreman publikoetarako batzordekidea; 9. Prestakuntzako batzordekidea; 10. Zientzia Politikoetako/Soziologiako batzordekidea;
- 11tik 20ra. Zientzia Politikoetako/Soziologiako batzordekidea.

Batzordeak 10 kide izanen ditu gutxienez (1.-10. karguak) eta gehienez ere 20.

### *Gobernu Batzordearen hautapena*

#### **34. artikulua.**

Dagokion batzarrean Gobernu Batzordea bi urterako aukeratuko da, arauzko agintaldia bukatutakoan hasiko dena. Bozketa horretan, kuoten ordainketa eguneratua eta elkargokide gisa dagozkien eskubideak erabiltzeko modua duten kide guztiek parte hartzen ahalko dute.

Hautapena hautagai-zerrenda itxien bidez egiten da, zuzeneko eta isilpeko bozketa batean. Gehiengo soila eskatuko da. Batzordeko kideak behin eta berriz berraukeratzen ahalko dira, denbora mugarik gabe.

#### **35. artikulua.**

Gobernu Batzordeak elkargokide guztiei bidaliko dien zirkularrean bete beharreko karguen berri emanen du eta hautagaiak aurkezteko hamabost eguneko epea finkatuko.

#### **36. artikulua.**

Elkargokide guztiak izan daitezke hautagai, baldintza hauek betez gero:

- a) Hautagai-zerrenda aldarrikatzen denean urtebeteko antzintasuna izatea.
- b) Eskubide zibilak eta elkargoko kide gisa dagozkionak erabiltzeko moduan izatea.
- c) Hautagai-zerrenda batean baino gehiagotan ez egotea. Zerrenda hamabost eguneko epean igorri beharko zaio dekanuari, hautagai bakoitzak Gobernu Batzordeko zein kargu hartu nahi duen adierazita.

- d) Hautagai-zerrenda horretatik kanpoko hamar kideren abala izatea. Kide horiek ere kuoten ordainketa eguneratua izan beharko dute.

### **37. artikulua.**

Ezarritako epea bukatuta, hautagaien behin-behineko aldarrikapena egin eta hautagai-zerrenda guztiekin zerrenda bat prestatuko da, hiru egun balioduneko epean elkargokide guztiei bidaliko zaiena.

### **38. artikulua.**

Epe hori bukatuta, elkargokideek bidezko diren inpugnazioak egiten ahalko dituzte. Inpugnazioak dekanuari igorriko zaizkio, bost egun balioduneko epean. Gobernu Batzordeak inpugnazio horiei buruz eztabaidatu eta erabaki ondoren, hautagai-zerrenden behin betiko zerrenda prestatuko du, elkargokide guztiei hiru egun balioduneko epean bidaltzeko, hautapena egiteko tokia, eguna eta ordua zehazturik.

### **39. artikulua.**

Gobernu Batzordea hauteskunde batzorde gisa arituko da. Bozketa gutxienez hiru orduko saio batean eginen da, etenik gabe, aipatzen den tokian eta orduan. Hautagai-zerrenda bakoitzak ikuskatzaile bat eraman dezake.

Elkargokideek botoa gutun-azal itxi baten barrenean sartu eta mahaiburuari emanen diote. Eskatzen zaienean, beren nortasuna adierazi beharko dute.

### **40. artikulua.**

Botoa zuzenean ematerik ez duten kideek postaz eman dezakete. Horretarako, bozketa egin aurretik botoa gutun-azal baten barrenean sartu eta Gobernu Batzordeari igorriko diote, posta ziurta-tuaren bidez eta hartu-izanaren agiriarekin. Botoa gordetzen duen gutun-azala beste gutun-azal batean sartu beharko da, non sinadura, elkargokide zenbakia eta boto-emailearen datuak erantsiko baitira. Bozketa hasi aitzin, idazkariak gutun-azalak irekiko ditu botoa postaz eman dutenak identifikatzeko, eta botoen gutun-azal itxiak hauteskundeko mahaiburuari emanen dizkio, hautestontzian sar ditzan.

### **41. artikulua.**

Bozketa bukatu ondoren, botoen jendaurreko kontaketa eginen da. Boto-paper bat baino gehiago dutenak baliorik gabe utziko dira, bai eta kargu bakoitzerako hautagai bat baino gehiago adierazi dituztenak, boto-emailea identifikatzeko daturen bat falta dutenak eta hautagaiei ez dagozkien izen edo hitzak idatzita dituztenak ere.

### **42. artikulua.**

Emaitzak aldarrikatu ondoren, aukeratu diren hautagaien berri emanen du dekanook. Hautetsi horiek kargua onartu edo ukatzen duten adierazi beharko dute.

### **43. artikulua.**

Batzordekideek zortzi eguneko epea izanen dute kargua hartzeko eta, horrekin batera, lehengoek kargua utzi beharko dute. Gobernu Batzordearen osaera Nafarroako Foru Gobernuari jakinarazi beharko zaio.

## *Gobernu Batzordeko kargua uztea eta dimisioa*

### **44. artikulua.**

Gobernu Batzordeko kideek honelakoetan utziko dute kargua:

–Norberak eskatuta.

–Bilkuretara hiru aldiz jarraian huts egiteagatik, justifikatu gabe.

–Arautegi honetako 14. eta 18. artikuluetan araututako bilkuretara justifikatu gabe huts egitea-gatik.

–Legezko arrazoiengatik (desgaikuntza, etab.).

#### **45. artikulua.**

Kasu horiez gainera, zentsura-mozio baten ondorioz ere utzi beharko dute kargua Gobernu Batzordeko kideek. Proposamen hori elkargokideen eskubide guztiak erabiltzeko moduan dituzten kideen ehuneko hogeita hamarrek berretsi beharko du. Bilkura berezi batean aurkeztuko da, estatutu hauetako 22. artikuluan ezarri bezala. Mozioa ezetsiz gero, urte bat igaro arte ezin izanen da Gobernu Batzorde horren kontrako beste moziorik aurkeztu.

### *Gobernu Batzordearen eginkizunak*

#### **46. artikulua.**

Gobernu Batzordeak eginkizun hauek ditu:

- a) Batzarren erabakiak betearaztea.
- b) Elkargoan kide egin eta baja hartzeko sistema erregelamenduz ezartzea eta kide izateko eskaerak ebaztea. Azkeneko eginkizun hori dekanoren edo idazkariaren esku utz daiteke.
- c) Kuotak eta ezartzen diren gainerako diru-ekarpenak biltzea.
- d) Lan batzordeak zuzentzea.
- e) Gobernu Batzordeetako hauteskundeetarako eta batzarretarako deialdia egitea.
- f) Elkargoak erakundeetan, batzordeetan eta beharrezkoak diren gainerako instituzioetan izanen dituen ordezkariak izendatzea.
- g) Urteko aurrekontu eta kontuak prestatzea.
- h) Kapital sozialaren inbertsioak proposatzea batzarrari.
- i) Behar diren administrarien eta menpekoen zenbatekoa zehaztea, hala nola haien soldata eta ordainsariak.
- j) Zehapenei buruz eztabaidatu eta erabakiak hartzea, estatutu hauetan ezarritakoari jarraikiz.
- k) Espainiako zein atzerriko ikastetxe, fakultate edo ikerketa institutu publiko edo pribatuekin lankidetzatza sustatzea.
- l) Elkargoaren izenean, Administrazioaren eta entitate publiko edo pribatuen proiektu eta ekimenei buruz txostenak egitea, idatziz edo ahoz.
- m) Elkargokideentzako trukeak, ikasketa bidaiak, poltsak eta antzekoak sustatzea.

### *Gobernu Batzordeko kideen eginkizun berariazkoak*

#### **47. artikulua.**

Dekanoaren eginkizunak:

- a) Elkargoaren ordezkari ofiziala izatea Administrazioarekin eta zuzenbide publiko edo pribatuko gainerako entitateekin izaten diren harremanetan.
- b) Gobernu Batzordeko eta batzarretako bilkuretarako deialdia egitea, gai-zerrenda prestatzea eta bilkurak zuzentzea, estatutu hauetan ezarritakoari jarraikiz.
- c) Elkargoaren diru-funtsen ordainketa-aginduak egitea, Batzar Nagusiaren erabakiak bete-arazteko.

- d) Elkargoaren jarduera sustatzea, lana koordinatuz eta zuzendaritza organoetako kideen artean banatuz.
- e) Bere esku dauden ahalmenak batzordekideei eskuordetzea, berak nahi bezala.

#### **48. artikulua.**

Dekanordearen eginkizunak:

- a) Dekanoaren ordezkariak hura eri, kanpoan edo kargua hutsik dagoenean, bai eta dekanok agintzen dizkion eginkizun guztiak egitea ere.
- b) Politika administratiboari buruzko aholkuak ematea Batzordeari, Administrazioarekin eta beste erakunde pribatuekin segitu beharreko jarraibideak proposatuz.
- c) Elkargoaren barne funtzionamendu eta antolamendua zuzentzea.

#### **49. artikulua.**

Idazkariaren eginkizunak:

- a) Eskara eta komunikazioak tramitatzea, dekanuari edo dagokion batzordekideari igorritz.
- b) Elkargoaren akta liburuak, zigiluak eta gainerako agiri ofizialak gordetzea.
- c) Agiriak baliozkotzea erabaki eta ziurtagiriak sinatuz eta dekanoren "ontzat emana" adieraziz.
- d) Bulegoen funtzionamendua eta elkargoaren lan administratibo eta burokratikoa zuzentzea.

#### **50. artikulua.**

Idazkariordearen eginkizunak:

- a) Idazkaria ordezkatzeko, hura eri edo kanpoan denean edo kargua hutsik dagoenean.
- b) Idazkariak eskuordetzen dizkion eginkizunak betetzea.

#### **51. artikulua.**

Diruzainaren eginkizunak:

- a) Elkargoaren funtsak bildu eta zaintzea.
- b) Dekanoak prestatzen dituen ordainketa aginduak ordaintzea, kontu-hartzailea jakinaren gainean egonda.
- c) Hilabeteko gastu eta diru-sarreraren kontua eta urteko kontua prestatzea.
- d) Gobernu Batzordeak batzar nagusian aurkeztu beharreko urteko aurrekontuak prestatzea.
- e) Elkargoaren ondasunen inbentarioa eguneratua izatea.

#### **52. artikulua.**

Kontu-hartzailearen eginkizunak:

- a) Diruzaintzako eragiketak jaso eta fiskalizatzea, kontu-zentsoreen lana errazteko.
- b) Estatutu hauek betetzen direla begiratzea eta elkargokideen interesak babestea.

#### **53. artikulua.**

Batzordekide aholkulari juridikoaren eginkizunak:

- a) Elkargoarentzat interesgarriak diren arautegi eta ebazpen ofizialak jakinarazi eta horiei buruz aholku ematea Gobernu Batzordeari.
- b) Estatutu hauetan ezartzen diren zehapen espedienteak instruitzea.

**54. artikulua.**

Informaziorako eta harreman publikoetarako batzordekidearen eginkizunak:

- a) Hedabideekin harremanak izatea, elkargoaren jardueren berri emateko.
- b) Elkargoaren buletin, informazio-orrien eta abarren argitalpena zuzentzea.
- c) Elkargoak antolatzen dituen bidaia, topaketa, ikastaro eta mintegiak antolatzea.

**55. artikulua.**

Prestakuntzako batzordekidearen eginkizunak:

- a) Prestakuntza beharrak detektatzea.
- b) Elkargoaren urteko prestakuntza plana egitea.
- c) Prestakuntza entitateekin eta praktika-sistemekin harremana izatea.

**56. artikulua.**

Zientzia Politikoetako eta Soziologiako batzordekideen eginkizunak:

- a) Fakultateekin, ikerketa zentroekin eta abarrekin informazioa trukatzeko harremanak lantzea, elkargoari interesatzen ahal zaizkion jardueri begira eta alderantziz.
- b) Topaketen, ikastaroen, mintegien eta abarren antolaketa sustatzea.
- c) Elkargoko liburutegiaz, artxiboez eta informatikako materialaz arduratzea.
- e) Proiektuak eta ekintzak zehaztea, koordinatzea eta, kasua bada, gauzatzea.
- f) Elkargoaren lan eremuak koordinatzea eta dinamizatzea.

*Kontseilu Profesionala***57. artikulua.**

Nafarroako Zientzia Politikoaren eta Soziologiaren Kontseilu Profesionala ezartzen da laguntza eta aholkularitzarako organo gisa. Kontseilu Profesionalak aholku emanen dio Gobernu Batzordeari lanbidearen inguruko kontuei buruz, eta honako gaietarako buruzko informazioa behar izanez gero, txosten prestatuko du: estatutuen aldaketa, kode deontologikoa, lanbidearen erregelamendua, lanbide jardueraren kalitatea bermatzea, ikasketa planak eta, oro har, Gobernu Batzordeak galdetzen dizkion gainerako gaiak.

**58. artikulua.****Osaera:**

Kontseilu Profesionalak kide hauek izanen ditu:

Zientzia Politikoetako eta Soziologiako edo antzeko gizarte zientzietako katedradunak, Nafarroako unibertsitateetako klastroetakoak; beste unibertsitate batzuetako arlo horietako katedradunak, unibertsitateak Nafarroarekin nolabaiteko harremana edo lotura baldin badu; arlo horietako profesionalak, doktoreak, lizentziadunak edo gradudunak, eremu publikokoak edo pribatukoak, baldin eta nabarmendu badira gizarte ikerkuntzan, irakaskuntzan, komunikabideetan edo erakunde publiko edo pribatuen kudeaketan. Horiek guztiak lan jardunean edo erretiroan izan daitezke.

**59. artikulua.****Izendapena:**

Kontseiluak 25 kide izanen ditu gehienez. Gobernu Batzordeak Kontseilu Profesionalaren eraketa eta hartarako izendapenak proposatuko dizkio Batzar Nagusiari, bi urterako. Izendapen



proposamena onartuz gero, kontseilukide bakoitzari bere kreditazio ofizial izenduna egingen zaio. Kontseiluko kide izatea ohorezko kargua izanen da.

## **60. artikulua.**

### **Kargu uztea:**

Kontseilu Profesionaleko kideek honakoetan utziko dute kargua: norberak eskatuta; kontseilukide izateko aintzat hartutako kargua edo lanpostua utzitakoan; 75 urte betetakoan; eskubide zibilak kenduz gero; eta nortasun zibila galduz gero.

## **61. artikulua.**

### **Funtzionamendua:**

Kontseilu Profesionala gutxienez urtean behin bilduko da, edo aginduzko txostena behar duen gairen bat jorratu behar duenean edo Gobernu Batzordeak eskatzen duenean. Bilkuretan Elkargoko dekanoa eta idazkaria egonen dira. Azken horrek akta egin beharko du. Beharrezkoa denean, Kontseilu Profesionaleko kideak elkargokideen ordezkari gisa aritzen ahalko dira agintari publikoen eta erakundeen aurrean, Gobernu Batzordeko kideekin batera.

### *Elkargoaren araubide ekonomikoa*

## **62. artikulua.**

Elkargoak ondarea kudeatzeko erabateko ahalmena du.

## **63. artikulua.**

Elkargoaren baliabideak honako hauek izanen dira:

- a) Elkargokideen kuotak: izena ematekoak, urterokoak eta kuota bereziak. Kuotak Gobernu Batzordeak finkatuko ditu eta, behar izanez gero, Batzar Nagusiak berretsiko.
- b) Elkargoaren inprimaki, akta eta agiri ofizialak egiteagatik kobratzen diren tasa eta esku-bideak.
- c) Argitalpenak saltzeagatik eta jarduerak egiteagatik lortzen diren etekinak.
- d) Kapitalaren interesak.
- e) Txostenak eta irizpenak egiteagatik kobratzen diren ordainsariak.
- f) Dirulaguntza eta dohaintzak.
- g) Bestelako diru-sarrerak.

### *Urteko txostena*

## **64. artikulua.**

1. Elkargoa gardentasun printzipioari lotua egonen da bere kudeaketan. Horretarako, urteko memoria prestatu beharko du Elkargoak, gutxienez honako dokumentazio honetaz horniturik:
  - a) Kudeaketa ekonomikoaren gaineko urteko txostena, barne direla langileen gastuak, behar adina xehakatuak, eta Gobernu Batzordeko kideen ordainsariak, karguaren arabera zehaztuta.
  - b) Kuoten zenbatekoa, kontzeptuaren eta emandako zerbitzu motaren arabera zehaztutakoa, bai eta haiek kalkulatu eta aplikatzeko arauak ere.
  - c) Informazio agregatua eta estatistikak instrukzio fasean dauden edo irmo bihurtu diren informazio eta zehapen prozedurei buruz, zer arau-hausteri buruzkoak diren, haien

tramitazioa eta ezarri zaien zehapena adierazita, eta betiere, datu pertsonalak babesteko legeriarekin bat.

- d) Informazio agregatua eta estatistikak, kontsumitzaileek edo erabiltzaileek edo horiek ordezkaten dituzten erakundeek aurkeztutako kexa eta erreklamazioei buruz, haien tramitazioari buruz, baita, bidezkoa denean, kexa edo erreklamazioa onetsi edo ezesteko arrazoiei buruz ere, betiere datu pertsonalak babesteko legeriarekin bat.
  - e) Kode deontologikorik izanez gero, haien edukian egindako aldaketak.
  - f) Gobernu Batzordeko kideek izan ditzaketen interes gatazkak eta bateraezintasunei buruzko arauak.
2. Urteko memoria web-orrian argitaratu beharko da, urteko lehen sei hilekoan.
  3. Kontseilu Nagusiak, halakorik baldin badago, memoriarekin batera, jendaurrean jarriko du artikulu honetako lehenbiziko apartatuan aipatzen den informazio estatistikoa, gehitua, elkargoko erakunde guztirako.
  4. Aurreko apartatuko aurreikuspena betetzeko, Autonomia Erkidegoetako Kontseiluek eta Lurralde Elkargoek urteko memoria egiteko behar den informazioa emanen diote beren Kontseilu Nagusiari edo Gorenari.

#### *Zerbitzu-sariei buruzko gomendioak emateko debekua*

##### **65. artikulua.**

Elkargoak ezin izanen du ezarri lanbideko zerbitzu-sariei buruzko gutxi-gorabeherako baremorik, gomendiorik, jarraibiderik, araurik edo erregelarik.

#### *Estatutuen aldaketa eta interpretazioa*

##### **66. artikulua.**

Gobernu Batzordeari dagokio estatutuak interpretatzea.

##### **67. artikulua.**

Estatutuak aldatzeko, batzar berezirako deia egin beharko da, non aldatzeko proposamena eztabaidatuko baita. Proposamena onesteko, bi herenen gehiengoa beharko da, estatutu hauetako 26. eta 28. artikuluetan ezarrita dagoen bezala. Nafarroako Gobernuari aldaketaren jakinarazpen ofiziala igorri beharko zaio, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

#### *Egintzen eta haien inpugnazioaren araubide juridikoa*

##### **68. artikulua.**

Gobernu Batzordeak edo Batzar Nagusiak hartutako erabakien kontra errekurtsua jartzen ahalko da, urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoari jarraikiz, batez ere V. tituluko 106. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraikiz.

Errekurtsu guztiak Gobernu Batzordeari zuzentzen ahalko zaizkio. Jaso ondoren, Batzordeak goragoko organoari igorri beharko dizkio hamar eguneko epean, berak egindako txostenarekin eta espedientearen kopia oso eta antolatu batekin batera.

Errekurtsuaren egileak erabakiaren betearazpena eteteko eskatzen ahalko dio Nafarroako Gobernuko organo exekutibo gorenari, eta hark, nahi izanez gero, erabakia etetea agindu lezake.

Berraztertze errekurtsoa edo gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu denetik hiru hilabete igaro badira eta ebazpenik jakinarazi ez bada, ulertuko da ezetsi egin direla errekurtsook eta, irekita geratuko dira, lehenengo kasuari dagokionez, gora jotzeko errekurtsoaren bidea eta, bigarrenari dagokionez, administrazioarekiko auzibidea.

#### **69. artikulua.**

Aparteko berrikuspen-errekurtsoa Gobernu Batzarrari zuzen dakioke, eta kasua bada, goragoko organoari, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 125. eta 126. artikuluetan ezarritako tramiteei eta epeei jarraituz.

#### **70. artikulua.**

Errekurtso korporatiboak agortu ondoren, Elkargoko organoek emandako egintzen aurka administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo daiteke zuzenean, egintza horiek administrazio zuzenbideari lotuta baitaude.

### *Lan batzordeak*

#### **71. artikulua.**

Elkargokide gehienek Elkargoaren jardueretan parte har dezaten, batzordeak eratuko dira lan arlo jakin batzuk jorratzeko.

Batzorde irekiak izanen dira eta elkargokide guztiak parte hartzen ahalko dute. Gobernu Batzordeko kide batek edo hark eskuordeturiko kide batek koordinatuko ditu.

Batzordeen kopurua, osaera eta eskumenak aztertu edo ebatzi beharreko gaien edo beharren arabera izanen dira.

Batzordearen lagungarri, Batzorde Tekniko bat sortuko da.

#### **72. artikulua.**

Honako hauek proposa dezakete batzordeak sortzea:

- a) Gobernu Batzordeak.
- b) Edozein elkargokidek, gutxienez hamar elkargokideren babes baldin badu. Eskaera Gobernu Batzordeari egin beharko dio. Batzordeak onartzen ez badu, Batzar Nagusiari proposatzen ahalko dio, estatutu hauetan adierazitakoaren arabera.

#### **73. artikulua.**

Batzordeek eginkizun hauek izanen dituzte:

- a) Gobernu Batzordeari aholku ematea, horrek hala eskatuta.
  - b) Elkargoaren lan planak garatzea.
  - c) Gobernu Batzordeari ekimenak proposatzea.
  - d) Elkargoaren proiektuak eta ekintzak gauzatzea.
- 3) Batzar Nagusien bilera arruntetan eta berezietan proposamenak egitea. Horiek eguneko gai-zerrendan jasoko dira.

#### **74. artikulua.**

Batzordeek ateratako ondorioak eta proposamenak Gobernu Batzordeari igorriko zaizkio, zeinak hurrengo bileran aztertuko baititu nahitaez. Gero, egokitzen ez dituen buruzko arazoizko txostena eginen du eta, kasuan kasuko batzordearekin ados jarrita, betearaziko ditu, estatutu hauetan eta barne araudian ezarritakoari lotuz betiere.

Gobernu Batzordeak batzorde batean hartutako erabakia atzera botaz gero, batzordeak Batzar Nagusi berezira jo dezake. Horretarako, biltzeko presako deialdia egin beharko da, estatutueta ezarritakoari jarraikiz.

#### **75. artikulua.**

Batzorde horien erabakiak kideen gehiengo soilaz hartuko dira, baina baliozkoak izanen badira bi herenen quoruma beharko da gutxienez.

Hiru bilkuratan jarraian aipatu quoruma lortzen ez bada, deseginen da batzordea, aldi baterako behintzat, eta horren eskumenak Gobernu Batzordeak hartuko ditu.

#### **76. artikulua.**

Batzordeek egindako lanaren berri eman beharko diote Batzar Nagusiari.

### *Desegitea eta likidaziorako araubidea*

#### **77. artikulua.**

##### **Elkargoa desegitea eta likidazioa.**

“Colegio Oficial de Sociología y Politología de Navarra-Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargo Ofiziala” desegiteko Nafarroako Gobernuaren onespina beharko da, foru dekretu bidez, dagokion departamentuak proposaturik.

Desegiteari buruzko foru dekretuak berak zehaztuko ditu desegiteak ekarriko dituen ondorio juridikoak, eta bere ondare, eskubide eta betebeharren likidazioa egiteko prozedurak ezarriko ditu. Halaber, baldin eta horrelakorik balego, gerakinen destinoa ezarriko luke, elkargoaren desegitea erabaki ondoren hura onesteko deitzen den elkargoko Batzar Nagusi bereziak likidaziorako onetsiko dituen arauari jarraikiz.

Elkargoak bere nortasun juridikoa eta gaitasuna galduko ditu desegitea xedatzen den araua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unean.

### XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenbizikoa.**—Gobernu Batzordeak ahalmena du zientzia politikoaren eta soziologiaren eremuan izen handia duten Espainiako edo Europar Batasuneko pertsonak “Colegio Oficial de Sociología y Politología de Navarra-Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargo Ofizialean” sartzeko proposamena egiteko, nahiz eta izendatu horiek gizarte zientzietako beste jakintza arloren bateko lizentziadunak edo doktoreak izan, baldin eta esparru profesional edo akademikoan, arlo publikoan edo pribatuan, politologo edo soziologo gisa ibilbide aski egiaztatua izan badute.

**Bigarrena.**—Hautagai horiek elkargoan sartzeko, Gobernu Batzordeko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da. Gero, hautagai horiek banan-banan berretsi beharko ditu Batzar Nagusiak, orduan ere bi herenen gehiengo kalifikatuarekin.

**Hirugarrena.**—Prozedura honen bidez elkargoan sartzeko profesionalak gainerako elkargokide guztiek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak izanen dituzte.

**Laugarrena.**—Administrazio Publikoek dokumentuak kontrolatzeko duten ahalmena. Administrazio Publikoek, antolatze duten autonomia erabiliz eta beren eskumenen barnean, ahalmena dute, beren eginkizunak hobeki betetzeko, elkargo profesionalekin edo beste entitate batzuekin, banaka, beharrezkotzat jotzen dituzten hitzarmenak ezartzeko edo zerbitzuak kontratatze, betiere dokumentuak egiaztatze, egiaztatze teknikoak egiteko edo aplikatzeko den araudia betetzeari buruzko egiaztatzeak egiteko, lan profesionalei buruzkoak. Lege honetan aurreikusitakoak ez dio ahalmen horri eragiten.